

NEURE KRISTAU AUSNARKETA

KRISTO ERREGEREN GERILERUAK KRISTORENAK EMON EUSKUEZALA- TA, NEURE KRISTAU AUSNARKETA

Ondarroako Institutoko irakasleen klaustroan lagun izan gendun Patxi Aranburuk onan esaten eban: "Fanatismo guztiak txarrak dira, baiña erlijio fanatismoa txarrena". Egia au gero eta egia biribilagoa erizten jato Eta erlijio fanatismoari politika fanatismoa alkartzen badeutsagu ... ori negargarria izango litzateke.

Ebanjelioan irakurtzen dogu Jesusek egindako ogi eta arrainen ugaritzea ikusirik, jendeak, arrituta, onela iñoan: "Au da, benetan, mundura etortzekoa zan profetea. Jesusek, orduan, errege egiteko indarrez eroan naiko ebela ikusirik, mendira aldegin eban barriro berak bakarrik" (Jn. 6, 14-15).

Ebanjelioari jarraituz, Jesus epaitzeko Pilatoren aurrera eroan ebeneko pasadixua aurkitzen dogu. Pasadixu onetan, Pilatok, ea judarren erregea zan ala ez itandu eutsanean, Jesusek olan erantzun eutson: "Nire Erregetza ez da mundu onetakoa. Nire Erregetza mundu onetakoa balitz, nire zaintzaileek gogor egingo leukeen judarren eskuetan jausi ez nendin; baiña, nire Erregetza ez da emengoa" (Jn. 18,36).

Ebanjelioko orrialdeok irakurrita gero, begirada luze bat egin daiogun Elizaren historiari. Zelan jokatu dau Elizeak? Zelan jokatu dogu kristinauok? Zer aukitzen dogu gure Elizaren historian? Zer aukitzen dogun?: kurutzadak eta kurutzadak. Kurutzada berbeak auxe esan nai dau: Kurutze Santuaren izenean gerrak egitea edo Jesukristoren kurutzea defendatzeko gerrak egitea.

Zoritxarrez, historian zear kurutzada asko ezagutu izan doguz; azkenengoa 1936-39ko Gerra Zibila, Españaiko Obispo guztiak, bik izan ezik, bedeinkatua. Salbuespenak izan ziran: Tarragonako kardinala zan Vidal y Barraquer jauna, eta D. Mateo Mujika, Vitoria-Gasteizko Gotzaina.

Ezin daikegu aaztu "Inkisiziño Santua". Inkisidoreek Jesukristoren Kurutzearen izenean eriotzara galtzen zituen euren eritzizko erejeak eta era guztietako sorginak.

Gogoratu daiguzan, baita ere, Aita Santu batzuk, euren lurraldeak ("Estados Pontificios") defendatzeko egin zituen gerrak. Aita Santuen lurralde honeen ezaugarri lez or dogu Vaticanoa, Vaticanoko Estatua. Eta gauza arrigarriagoa, Aita Santua Vaticano Estatuko buruzagia da. Arrigarria dala diñot Aita Santuaren egoitza Erromako San Joan de Letrango katedrala dalako. San Joan de Letran da Erromako Gotzainaren eliza-katedrala; eliza onetan dauko Ebanjelioa zabaltzeko katedra-jarlekua eta Erromako San Joan de Letraneko Gotzaina da ALTA SANTUA. Orregaitik, Aita Santua errialde batera joaten danean errialde aretako agintariek onartzen eta zaintzen dabe Vaticano Estatuko Buruzagi lez eta ez Aita Santu lez,

Bai, ezagutu doguz antxiñako Kurutzatuak, gure gazte denporako jesuiten kolejoetako Gazte Kurutzatuak, Mejikuko Kristoren Lejionarioak, Madrileko Kristo Erregeren gerrileruak... Dan-danak soldaduen izenekin, gudularien izenekin. Eta nik neure kolkorako: Zergaitik orrenbeste guda Kristoren kurutzea defendatzeko? Edo kristau fedea defendatzeko? Gure eliztar batzuk zergaitik daro ez gudak eta gudularien ekintzak gogoratzen deuskuezan izenak? Baiña Jesukristok sekulan santan ez ba-euskun eskatu bere izena armakin defendatzeko. Bere ikasbidea beti izan zan: "Zuen artean buruzagi izan nahi dauana, egin bedi guztien zerbitzari".

Penagarria da baiña ez dogu jokatu Nazareteko Jesusen asmoei eta bideei jarraituz, guztiz bestera baiño, alderantziz. Eta ni, benetan, lotsatu egiten naz gure historia triste au ikusirik. Uste dot oso interesgarria dala sarritan aipatzen dan "gure historiaren gogorapena" (memoria histórica). Gogorapen au ez da mendekurako bide bat edo gorrotoak biztuteko jokabide bato Alderantziz, "historiaren gogorapen" onen elburua auxe da: Gure azkeneko gerrea irabazi ebenak ixilpean eduki dituen dato historiku batzuk azaltzea eta argitzea. Orregaitik, nik uste dot Españako Elizeak, gure azkeneko historia onetan egindako oker eta utsakaitik, parkamena eskatu bearko leukela.

Garitaonandia'tar Jesus-Fko.
Begoñako Santutegiko Erretorea